

GAIAK

ANTZERKIAARTEBERTSOLARITZADANTZAFERAKUSKETAEUSKARA
IRITZI ARTIKULUAKJAIALDIKJARDUNALDIKITERATURAMUSIKAZINEMA
BESTELAKOAK

ATALAK

KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK
KS ARETOA

HERRIALDEKA

ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA
ZUBEROAEUSKALHERRIA

ZOKKETAK

DENDAOSTEKOKAMAK

HOME / GAIAK / LITERATURA / [BIDEOA] IBAN ZALDUAK 'NOLA IZAN GAREN GAUZA' IPUIN LIBURUA KALERATU DU



(argazkia: U. G. Kultur Sharea)

[@PUZKOA](#)
[LITERATURA](#)
[NABARMENUAK](#)
[PORTADAN](#)

[BIDEOA] IBAN ZALDUAK 'NOLA IZAN GAREN GAUZA' IPUIN LIBURUA KALERATU DU

By Ainhoa Lores Aranda / 2021-11-30

Idazleak azaldu duenez, "euskal gatazkaren inguruko nobela kaleidoskopiko bat da liburua, ipuinez osatua eta batez ere askotariko perspektibismoa azpimarratu nahiko lukeena".

Azken 23 urteetan euskal gatazkari buruz idatzitako 60 ipuin bildu ditu Iban Zaldauk (Donostia, 1966) *Nola izan garen gauza* liburuan (Erein). Idazleak Donostian aurkeztu du ipuin bilduma eta azaldu duenez, "ipuin ia guztiak liburu desberdinetan barreiatuta zeudenak dira", beste batzuk berriz, inoiz argitaratu gabeak izan direnak.

Orotara hamabi ipuin liburu ondu ditu Zaldauk bere ibilbide luzean, eta horietako batzuetatik hartu ditu lan berriak jasotzen dituenak: *Ipuin berriak* (Erein, 1999), *Gezurak, gezurak*, *gezurak* (Erein, 2000), *Traizioak* (Erein, 2001), *Itzalak* (Erein, 2004), *Etorbizuna* (Alberdania, 2005), *Biodiskografiak* (Erein, 2011), *Inon ez, inoiz ez* (Elkar, 2014) eta *Sekula kontatu behar ez nitzizun gauzak* (Elkar, 2018) liburuetatik, hain zuzen.

2018an *Como si todo hubiera pasado* (Galaxia Gutenberg) liburuan bildu zituen gaztelaniaz gatazkari buruz idatzitako 42 ipuin. Batzuk kanpoan gelditu ziren eta orain, "askoz bilduma osoago bat" sortu du idazleak, "gaztelaniazko bertsioan falta ziren ipuin horiek sartuta, aurkitzeko zaila zen bat edo besterekin, eta liburuetan ez zeuden beste laurakin. Azken horietako bat dugu *Partidak*, Erein argitaletxeko editore Inazio Mujikarentzat ipuin "luzea eta jakingarria" dena.

Egileak azaldu duenez, euskal gatazkaren inguruko nobela kaleidoskopiko bat da liburua: "ipuinez osatuta, batez ere multiperspektibismoa azpimarratu nahiko lukeena, gatazkaren alderdi desberdinak hartu nahi dituen, perspektiba desberdinetatik analizatuta eta aztertuta, eta denboran zehar historia nola bilakatzen den erakusten duena".



Zabaldur:



Tags: Erein, Euskal Literatura, Iban Zaldau, Nola izan garen gauza

[\[BIDEOA\] DELIRIUM TREMENSEK KONTZERTU BEREZIA EMANGO DU 2022KO MAIATZAREN 28AN, BEGEN](#)

BILATU

Bilatu ... BILATU



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA BIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila | Eusko Jaurlaritza | Gobierno Vasco | Euzko Legebiltzariak | Euzko Legebiltzarra



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

